



Harridura

1

Begiratu arretaz Emoziotegiko 48-49. orrialdeetako tigreari. Gero, erantzun galderei.

- Uste duzu harritura dagoela? Zergatik?

- Uste duzu tigreak ikusten duena egia izan litekeela? Zer egoeratan?

2

Zer esaten duzu harridura adierazteko? Gogoratu, eta idatzi.

Anaiak

3

Idatzi 1etik 5era bitarteko zenbakiak Aiorak atzo bizi zuenaren prozesua ordenatzeko.

- Aiorak txalo jo zuen liluratuta: "Bai ederra! Nola egiten du?"
- Aiorak oihu egin zuen: "Ez da posible!"
- Aiorak zenbait aldiz kliskatu zituen begiak... Egia zen!
- Zirkoan, Aiorak ahotik sua botatzen zuen gizon bat ikusi zuen.
- Orduan, gizonak beste sugar bat bota zuen.

4

Orain, adierazi zer egiten duen edo esaten duen Aiorak une hauetan.

- Aiorak uste du zerbait ezinezkoa dela.
-

- Aiorak egiaztatu du ezinezkotzat jotzen zuen hura egia dela.
-

- Aiora liluratuta geratu da.
-

5

Nork sentitzen du **harridura**? Azpimarratu haren izena, eta arrazoitu zergatik aukeratu duzun.

Laida eta haren seme Jokin 3D-ko film bat ikustera joan ziren atzo. Jokinek asko ikusi ditu dagoeneko, baina Laidak ez. Lehenengo irudiekin, Laidak oihu egiten zuen: "Ez da posible! Sinestezina da!" "Ez, ama; horrela izaten da beti. 3D-ko film bat da", azaldu zion Jokinek.

6

Osatu taula.

Ekintza	Eraitza	Ezaugarria
harritu		
	ezustekoa	
		zoragarria

7

Irakurri **jakin-min** hitzaren definizioak, eta idatzi dagokion zenbakia esaldi bakoitzaren ondoan.

jakin-min.

1. Zerbait jakiteko gogo bizia.
2. Pertsona batek berez inporta behar ez litzaizkiokeen gauzak jakiteko duen interesa.

Jonek jakin-min handia du sukaldaritzaren inguruan: pastelak egiten ikasi nahi luke.

Enekok jakin-min handia du besteen bizitzaren inguruan: horregatik, beti adi entzuten du besteek diotena.

● Orain, idatzi zuk esaldi bana hitzaren esanahi bakoitzarekin.

8 Irakurri istorioa, eta erantzun.

Sinaso zaharra

Sinaso zaharra kale berean bizi izan zen beti. Egun batean, osteratxo bat egitera irten zen, beti egin ohi zuen moduan. Hegoak zituen suge batekin egin zuen topo; baita barraskilo alderantzikatu batekin, hitz egiten zuen erratz batekin, haizezko harri batekin eta beste gauza askorekin ere. Baina ezerk ez zuen harritzen. Harik eta etxera itzuli eta bere burua ispiluan ikusi zuen arte. Haur bat zuen ispiluaren beste aldetik begira. Ene! Orduan bai, begiak zabal-zabal ireki zituen...

- Zer gertatzen zaio Sinaso zaharrari?

- Nolakoa uste duzu dela haren bizitza? Markatu.

dibertigarria

alaia

monotonoa

aurretik jakin ezin dena

- Zu harrituko al zinateke Sinasok topo egin zuen gauza horietakoren batekin topo egingo bazenu? Zeinek harrituko zintuzke?

- Uste duzu galdu daitekeela harritzeko gaitasuna? Nola?

9

Ispiluan zer irudi aurkitzeak harrituko zintuzke? Marraztu.

10

Begiratu Emoziotegiko 48-49. orrialdeetako irudiari, eta pentsa ezazu bere islari begira dagoen tigrea zarela. Zer esango zenioke beste tigreak?



